

Donostian, Ekauta-jauregian, mila bederatzireun eta berrogeta bederatzigarren urteko Azilaren ogei ta bostean, Azkue Jauna maipuru dala, batzen dira Etxaide, Elissalde, Zamarripa, Irigarai, Krutwig, Lafitte, Dassance ta Oleaga Euskaltzain jaunak, il oneri dagokon batzarra egiteko.

Bere irakasaldiak Bordelen atxikitzen dabela-ta egungo batzar onetara ezin etorri daitekela diño Lafon euskaltzain jaunak idazki baten.

Araudizko otoitza egin-eta, lenaurreko batzar-agiria irakurri da, ta aobatez onetsia izan da.

Urrengo, Oleaga Zadorlariak adierazoten dau, Baldes Goikoetxea Abadeak Bitori'ko Apezpiku-barrutirako Kristau-ikasbide barria euskeraz gertuten diardueta eta Apezpikuaren baimena lortzeko ta lan areian erabilitako euskerea aztertzeko Euskaltzaindiaren laguntasuna eskatu dabela. Leia aundiko arazoa zalako ta Euskaltzaindia batzeko astirik etzalako. Zadorlari berak lagungu dautso ta Apezpikuaren baimena lortu da ta laster argitaratuko da euskal-Kristau-ikasbide barri ori. Pozik entzun da guzti au.

Gero irakurri dira oraintsu Euskaltzain izentauriko Lafitte, Lafon, Saint-Pier, Dassance ta Lekuona Jaunak bidaldu dabezan eskutitzak euskaltzaingoa pozik euren gain artzen dabela adierazorik.

Lafitte jaunak irakurri dau urrengo Lakonbe euskaltzain izandako jaunaren gomuta omenean gertutako lan eder biozti bat. Txalo sutsu ta ugariak egin yakoz.

Krutwig jaunak irakurri dau gero "Antzundu Philologia" deritxon lan sakon bat. Arretaz ta pozik entzun da.

Urrengo adierazo da Zabala Euskaltzain-Urgazleak gertutako "Fonética de la toponimia vasca" lana. Donostian bizi diran euskaltzainak aztertu dagiela erabagi da.

Azkenez, Altube euskaltzainak, Gernikako Obietan ilobiren baten euskeraz yarritako oroitidazkiak agintariak kenarazi dabela dino idazki baten eta Euskaltzaindiak zer-edo-zer beronezaz egin ete-leiken itanduten dau. Seminario ta Oleaga jaunak euren ardurapean arazo au artu dagiela, erabagi da.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua
Resurreccion M.^a Azkue

Zadorlaria
Nagario Oleaga